

Ondarearen Europako Jardunaldiak, paisajeak ezetuteko

11. orrialdea

Gorbeia Suzien Ternua hilaren 7an

Mendi Lasterketetako Europako txapela jokatuko da Gorbeia Suzien Ternua Lasterketa Nagusian. Mendi korrikalari ezagunak hartuko dabe parte eta egun osoko jaia antolatu dau Suzien Mendi Klubak. Egunean bertan lasterketa herrikoa be egongo da, eta hurrengo egunean ume-entzako lasterketa. **11. orrialdea**



Jentilak Díman ibilbide mitologikoa urri bigarrenaren 14an izango da

13. orrialdea


TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

281

2017ko urri bigarrenaren 3a hamabostekaria
www.begitu.org



Ubidek parte hartzea bultzatuko dau Aplikazino baten bitartez

Ubideztarrak, eskuko telefonoko aplikazino baten bitartez herriaren gaineko informazioa eta jardueren barri jasotzen hasi dira, baita konsultak eta iradokizunak egiten be. Hirix App aplikazinoaren helburua herritarren parte hartzea sustatzea eta komer-

tzioa bultzatzea da. Beste herrietako jarduerak ikusteko be balio dau aplikazinoak.

Gainera Udalak panela be ipini dau informazioa emoteko. "Udalak egin eta herritarrek jasoten eben informazioaren artean parte handia egoan" dino alkateak. **7. orrialdea**

Erreferendumari babesak eman eutsien arratiarrak Katalunian

Urri lehenengoaren 20tik aurrera, konzentrazioak, mozinoak eta beste ekintza ugari egin ziran Arratian Kataluniako herriari independentziarako prozesuan alkartasuna adierazoteko. Erreferendum egunean, Kataluniara joan ziran asko.

Erreferendumaren egunean Espainiako poliziak eta Guardia Zibilak, jente asko zauritu eban. Erre-presinoa salatu eta "demokraziaren defentsan" lapiko jotze hotsa zabaldu zan 22:00etan. **6. orrialdea**



IGORRE

Euskerearen aldeko kanpaina

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuagaz eta herritar guztiai zuzenduta, "Urten armariotik!" kanpainearen barruan, zemen-diaren 10etik abenduaren 3ra arte euskereagazko 23 eguneko konpromisoa eskatu deutse Igorreko Euskera Zerbitzuak igorretarri.

Kanpaina hau herritar guztiai dago zuzenduta, ez euskeraz dakienai bakarrik. Euskaldun pasiboak, hau da, berba egin ez arren ulertuten dabenak, eurai euskeraz egiteko eskatuko dabe eta euskerarik ez dakienak barriz, gustetan jakiela inguruan euskera entzutea adierazoko dabe, paparrean ipinteko txapa batzuen bidez. Holan, "euskerearen armairutik urtetera" konbidatzen dauz igorretarriak Igarreko Euskera Zerbitzuak. **7. orrialdea**

LEMOA

Aurrekontuetarako proiektuak aurkeztuko dabez herritarrek

Lemoako Udalak 2018ko aurrekontuak oindino parte hartzaileagoak egin gura dauz, eta herritarren idea, kezka eta eretxiak bakarrik ez, proiektuak be jasoko ditu. Lemoztarrak proiektuak azalduteko fitxak jaso dabez etxeetan, eta modu elektronikoan be azaldu daitezke urri bigarrenaren 20ra arte. Udal teknikarien arabera bideragarriak diran proiektuak bozkatuko dabez gero, 2018ko aurrekontuetan sartzeako.

5. orrialdea



ARRATIA

Txeikiako konzentrazio-eremu bateko argazkiak irabazi dau lehiaketean

Aurten, 99 argazki jaso dauz BEGITUk Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Lehenengo saria Illart Gumuziok bialdutako "Terenzin. Erizaindegia" argazkiarentzat izan da. Bigarren saria, Asier Larrearen "Menorca II" argazkiarentzat izango da, eta hirugarren saria Ainhoa Mendiak ateratako "Udea zuribaltza danean" argazkiak eroango dau. Epaimahaiak, kalidade tekniko eta hausnarketea edo emozinoak sortzeako gaitasuna baloratu dauz. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA KOLOREETAN

UMEAK GURA DABEN ASTEA?

Urri lehenengoa hasteagaz batera, arkatz, errotuladore, margo, koaderno... motxilan sartu eta eskolan, ikasturtea hasten da. Lehen eguneko aurkezpena, bezperako urduritasuna, irakasle -eta agian klasekide- barriren bat, lagunai oporren barri emon... eta konturatu barik urteroko errutinan murgildu dira umeak. Eskolan egunero zazpi ordu pasau ondoren (jolas eta bazkalorduek kontuan hartuta), etxerako lanak egin eta agenda bete bateri egiten deusie aurre umeak

afaldu eta lotara joan aurretik. As-telehenetan futbola eta trikitixea, martitzenetan ingelera, eguaztentean futbola eta pintura, eguenetan ingelera eta gitarra, eta barikuetan libre baina sano nekatuta.

Ondo dagoz zaletasunak eta ondo dago umeen etorkizuna begiratzea, baina umeak gura dabena da? Umeak badaukie olgetako gura beste denporarik? Umeak egoten dira gurasoak behar eta gura beste?

Zaztarrak Asti Taldea



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urri bigarrenaren 2tik 8ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 9tik 15era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 16tik 22ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rakek Aldekoa Diez eta Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Jabi Peribañez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.200 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

He tingut un somni

Herri hau egunen baten zutunduko zala amesetan egin dot, ez Potomac errekearen ertzean, Washington DF-tik Georgetown-eraino zabaltzen zan jentetxea ikusita. Ez. Amesetan egin dot Sobrongo urtegitik Ebro errekearen deltaraino ikusi ahalko nebala ha jente guztia. Edo beharbada Sar-tagudatik. Amesetan egin dot herri lagun bateri askatasuna lortzean lagunduko geuntsala, geuk be errepublikea atzera be aldarrikatu genduala Eibarko udaletxearen balkoitik, aprileko egun baten ikurriña astinduz; eta beharbada Extremadurako Almendralejo herrian be IV. Errepublikea aldarrikatu ebela Espainiako trikolora astinduz. Amesetan egin dot kalera saldoka urtengo genduala Katalunia defendidutearren, gure sindikatuak greba orokorrera deituko ebela, ikasleak itxialdiak egingo ebezala, euskal baserriarrak

euren azienda eta traktorakaz autobide guztiak oztopatuko ebezala eta Pariseko kaleen azpian hondartzak topauko genduzala. Amesetan egin dot zerua esteladaz estaliko genduala. Amesetan egin dot Bartzelonako portuko Señorita Pepis-en itsasontzi hori be -Piolin eta guztigurre Bou Bizkaiagaz hondoratuko genduala. Amesetan egin dot Borbon deiturako horreek desterrurako bidea betirako hartuko ebela Irungo Santiago zubia zeharkatu ondoren. Ni bai inozente menbrilloa.

He tingut un somni, eta, halanda be, ez dakit sekula esnatuko ete nazan, Martin Larralde ha legez. Eta esnatu izan banintz, zer? Gaur domekea da, jentea eleizetan, larre berdeak, etxe zurriak, teila gorriak eta Ertzaintzaren autoa bidean. Eta neuk be esango dot zerua itsaso zikin bat dala. Zeru zikin bat gure kontzientzia geldoaren gainean.

ALVARO RABELLI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gaztai



Behi-esnea, ahuntz-esnea edo ardi-esnea apurtuz ateraten dan oreagaz egiten da. Gero, moldeetan sikatuten ipinten da eta produktua estimu handiko jatekoa bihurtzen da. Gaztai (gazta, Diman) esaten jako (gastáya, gastáye eta gastáea, agoskatuta). Euskal Herriko ekialdean gazna da. Era askotako gaztaiak dagoz gure artean; honakoak besteak beste: gaztai bigun, egun gitxi dituan gaztaia; gaztai fresko, gaztai egin barria, ur-kantidade gehiago dauka; eta gaztai siku, ondo lehortutakoa, gogorragoa eta ederragoa saborez.

ERETXIA

Gaur egun zaharra izatea zer da?



JESUS MARI ANZOLA

Jubiladua

Gurea lako herri baten nagusia izateak zer suposatzen dauan ulertuteko, aurreko belaunaldien (oin dala 30 edo 40 urte) eta egungo bizimoduaren arteko aldea ikusi behar da.

Gure gurasoetako askok oso goiz altxau behar izaten eben, garaiko garraioak hartu eta baje luzea egin beharrera joateko; askotan, Basconiara, Firestonera edo Bilboko portura. Lanpostua eukana zorionekoa zan, baina 10-11 ordu edo gehiagoko lanaldiak eukiten ebazan soldata xume baten truke. Hori izaten zan, familiak eukan soldatea, sarritan gainera, seme-alaba askotako familia handia izaten zan. Euretariako askok eta askok, etxera helduta, beste lan asko egin behar izaten ebezan; izan be, gehienak baserrikoak ziran.

Astegoiak sasoi haretan laburrak izaten ziran, astelehenetik zapatara egiten zan behar eta. Denpora libre urri hori baserriko lanak egiten emoten zan: satsak atera, bedarra ebagi eta gero sikatuteko, ortuak goldatu, erein eta abar.

Andren eguneroko beharra, aurretik azaldutako gizonena baino gogorragoa zan. Oso goiz jagiten ziran, etxeko behar guztiaz arduratu, eta txikienari titia emon, besteak hezi, janaria emon, erropak josi, egin, konpondu, garbitu, eskolara eroan... eta gizona etxetik kanpo egoan bitartean, ortua eta ganadua zaindu.

Labur esanda, urteko egun guztietan lan, asteko 7 egunetan behar, eta egunean 15 ordu inguruko lanaldi luzeak.

Biziteko modu horrek ez eutsen aisirako ia aukerarik emoten; gorputzak asko sufriduten eban, eta 55 edo 60 urtegar, 80 urtetik gorako atso edo agure itxura eukiten eben. Itxuraz gain, erreumak eta hazurretako minak jota egoten ziran; azterketa me-

dikuak eskasak ziran eta heriotzataso 60-65 urte inguruan egoan. Azken baten, jubilazinoa heltzean zan gorputzak gehiago ezin eban, behar egiteko modurik ez egoanean.

Gaur egungo nagusien bizimoduak ez dauka zerikusirik gure aurreko belaunaldien bizimoduagaz; baserri guneko bizitzatik, gune uritar edo urbanokora pasau gara.

Gure bizimodua errezagoa izan da orokorrean: fabriketako lan eroangarriagoa, astelehenetik barikurako egutegia, lanaldi laburragoak, baserriko beharrik ez edo askoz gitxiago, seme-alaba gitxiago... Kasu gehienetan, etxeko biak dira soldatapekoak, eta horrek aukera handiak eskeintzen deusaz aisia disfruteteari. Holan, egoera ekonomiko hobek gauza barriak ekarri dauz: oporrak, gimnasia, pilates, yoga, igeriketa, ari-niketa, eskia... Hori dana, kontuan hartuta gure belaunaldiko asko 58, 60 edo 62 urtegar erretiratu dala.

Osasunaren zaintza be asko aldatu da: batetik, osasun programak dirala, bestetik, baktaxaren osasuna eta ongizateagazko sensibilizazioa dala. Horrek danak, modu biziko zahartze aktiboa ekarri dau, antxina guztiz pentsaezina zan adinera arte. Holango zahartze aktiboak bizitasun handia emon deutso adin honetako jenteari: herriko ekimenetan parte hartzean dau, formazio tailerrak egin, aisialdirako aukerak kudeatu, nagusien alkartean lana, beste alkatetarako alkarlana, ilobak zaindu...

Labur esateko, nagusiak lanaren geroko sasoi osasun fisiko eta mental ezin hobean heltzean dira, indarrez gainezka 3. gaztaroz gozatuteko.

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Linoa Gorbeialdean

Gaur, edozein dendatan erosi geinkez linozko soinekoak eta abar. Gurean be, ezetu izan dogu linoaren kultura, linaza, linazasoro toponimo eta abizenak bitarteko. Linoa, udagoieneko San Lino inguruan ereiten zan gure soloetan eta behin San Juanetatik lasterrera ebagi. Lino-hazia erein, erne, loratu, heldu eta lino-harirako bidea luzea zan. Behin lino heldua ebagi ezker, ondo sikatzen zan eguzkitan. Hazia garandu eta gero, lino-bedar sikua, ur putzu baten sartzean zan ondo beratuteko. Jarraian barriro sikatu ondo eta jo-jo-jo egiten zan azalak bota arazo eta hariak atearateko. Linoa jo-jo ostean, ezpatatu egiten zan eta azal guztiak apartau hari-moltzoari. Behin horra ezker, kardau egiten zan linoa eta zarraparra guztiak kendu eta gero fin-fin irun gorueta bidez. Lino-hari moltzoa iruteko,

eukanak, pedaldun gorua erabilten eban eta ez eukanak, eskua, zurezko edo burdinazko ardatzaz. Linoa irun eta gero, matazak egiten ziran eta gero lixiba edo gobada egin ur bero eta surteko arte edo pago-hauts zuriagaz. Holan, zurutu egiten zan linoaren kolore marroizka. Azkenik, harilak egiten ziran eta ehuleari eroan mihise edo ehunak egiteko. Linoehuna egiteko tramankulua ez eukan edozeinek eta horregaitik ehulea edo ehulerua, bere zaldi edo mandoagaz ibiltzen zan etxerik etxe lino-harilak batzean bataz besteko tratua egiteko, normalean, dirutan barik mihisetan. Jakina, baserrietan linozko soinekoak eta ohe-izarak sano estimaduak ziran. Egin barritan, gogortuak eta latzak ziran baina erabiliz-erabiliz, bigundu eta zurutuz joaten ziran lino-erropok. Gaur egun ez da linorik ereiten gurean, baina lino-landare berez erneak nahinon ikusten dira gure landa zein bide baztarretan, batez be udabarran. Linoaren lorea urdina da eta bere haziaren zerukatxua berezia. Gaur arte, harildu bako lino latza, gure iturginak erabili izan deuskue tuberietako enpalmeetatik urik pasau ez egiteko.

ZERTZEAN



MADDI ZABALO

Gaia jarrita: "Udagoiena"

1

Paisajea aldatu dau goitik behera hostoak dantzan jarri batetik bestera udagoiena heldu da gure artera negurako bidean gugaz egotera.

2

Orain tranquil dabilku kantatzen, txistuka, besteak agurtzea osorik aiztuta mosu gozo bategaz uda agurtu ta "Laster egongo gara!" esan dau oihuka.

3

Orain lan egitea tokatzen jakonez inguru danak bete dauz gorri kolorez euria bueltatu dau eguzkian orde z guardasola atara dot bere omenez.

4

Hostoak piztu dabe oin gure ardura danak dekie eta nekatu itxura udagoienak emon dautsie logura lo egiten itzi dauz lurrean gustura.

5

Lana egin ostean danok gauz primeran udagoiena bebai, txoriek lez hegan, arrastia tranquil ta astiro aukeran haizeagaz olgetan pasatu ei eban.

6

Hiru hile egonda batetik bestera deskantsatzeko dauko oraintxe aukera lan egin eta gero badoa ohera datorren urterako atsedean hartzera.

BEGI TXINDORRA

Bertoak zientziatik gitxi daukan arren, aurreko zapatu baten bertsoa eta zientzia buztartu ziran Igorreko Kultur Etxean ikusi genduan *Jakinduriak mundue erreko dau* ikuskizunean. Kike Amonarrizen gidaritzapean, 3 zientzialari eta 3 bertsolari izan genduzan buruz buru eta guk itzel pasau genduan superkirolari, robot eta jaten dogunaz entzuten.

Illart Gumuzio



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa
hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalegori Zerbait 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridika · Fiskala · Lanak · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

LEMOA

Proiektuak aurkeztu leitekez 2018ko udal aurrekontuetarako

Lemoako Udalak 2018ko aurrekontuak oindino parte hartzaileagoak izatea gura dau eta herritarren idea, kezka eta eretxiak bakarrik ez, proiektuak be jasoko ditu 2018ko aurrekontuak prestatzeko. Lemoaztarrak aurkeztutako proiektuen artean, udal teknikarien arabera bideragarriak diranak bozkatuko dabez, 2018an abiatuko dana aukeratzeko. Horretarako 40.000 euro ditu Udalak.



Erredakzinoa

EH Bilduk alkatetza lortu eban lehenengo urtetik aurrekontu parte hartzaileak egin dituela Lemoan ekarri dau gogora Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. "Lehenengo urtetik bideratu doguz aurrekontuak parte hartze prozesu baten bitartez eta atzenengo urteotan aldaketa txikiak be egin doguz, baina nik uste, beste era bateko parte hartzea sustatu behar genduan. Hau da, norberaren beharizanak-eta itxi eta herri ikuspegia sartu". Horregaitik, oraingoan, 40.000 euro arteko proposamenak aurkeztu daiekiz lemoaztarrak, botoaren bitartez aukeratu izan ezker, datorren urtean martxan ipinte-

ko. Partaidetza modu barri hau diseinetako Maraka estudioaren laguntza izan dau Udalak.

Urri lehenengoaren 14an hasi zan Udala aurrekontu parte hartzaileen barrikuntza honeen barri emoten, kartel, eta beste publizidade euskarri batzuen bitartez. Hurrengo astean eskuorriak banandu ziran etxe guztietan. Eskuorri honeetan, prozesua azaldu eta proiektuak eta ideak aurkezteko eta bozketa egiteko fitxak dagoz.

Proiektua azaltzeko galdetegi bat dago fitxan. Bertan proposamena egiten dauanaren datuak, proiektuaren izenburua, deskribapena, azalpen marrazkia eta proiektuak ze onura eskentzen dituan Lemoarentzat edo

lemoaztarrentzat azaldu behar da. Baita, proposamena egiten dauanak, proiektuaren garapenean izan gura dauan inplikazio maila. Proposamenak udaletxean aurkeztu behar dira edo horretarako ipiniko diran buzoietan sartu. Modu elektronikoan be aurkeztu daitekez proposamenok lemoa.net webgunean edo eskuko telefonoko Udalaren aplikazioaren bitartez.

Orain arte moduan, idea, kezka edo eretxiak be aurkeztu daitekez eta horretarako beste fitxa bat dago eskuorrian.

Egutegia

Aurrekontuetarako ekarpenak, hau da, proiektuak edo-eta ideak, urri lehenengoaren 25etik urri bigarrenaren 20ra aurkeztu ahal dira. Zemendiaren 10era arte, udal teknikariak aztertuko ditue proiektuok, arlo ekonomiko, juridiko eta teknikitik bideragarriak diran jakiteko. Ondoren, zemendiaren 27tik abenduaren 8ra arte, jenteak bideragarriak diran proiektuak bozkatuko ditu eta abenduaren 12an jakinarazoko dau Udalak zein dan 2018ko aurrekontuetan sartuko dan proiektua edo proiektuak.

Ez da lehenengo aldia lemoaztarrak udal aurrekontuetarako proiektu bat bozkatzen dabena. Orain urte batzuk, Udalak proposatutako artean, zein proiektu lehenetsi bozkatu eben. Oso ondo atera zala bozketea eta jente askok emon ebalu botoa dino alkateak. Proiektu hareek guztiak eginda dagoz eta orain beste pausu bat emon gura dau Udalak, eta herritarrak eurak izan daitezala protagonista proiektuak aurkeztuz.

Parte hartu ahal izateko Lemoan erroldatuta egon behar da eta 16 urte baino gehiago euki. "Lemoaztar guztien premia eta gurariak erantzuna emongo deutseen proposamenak jaso gura doguz, danontzako herri adeitsuagoa eregitea ahalbidetuko dabena" dinoe Udaletik.




AREATZA

Carlos Becerra eta Edorta Bilbaoren koadroak zozketatuko dira hilaren 20an

Edorta Bilbao eta Carlos Becerraren zazpi margolan zozketatuko ditu urri bigarrenaren 20an Gure Esku

Dago plataforman dagoan Dagigun Areatza alkarteak, zemendiaren 5eko herri konsulta finantzietan lagunduteko.



Erredakzinoa

Horretarako mila errifa ipini ditu salgai. Koadroak herriko tabernetan dagoz ikusgai, erakusketa ibiltari baten. Zozketatuko diran margolan guztien gaia Areatza da.

Edorta Bilbao, billaroztara da eta Carlos Becerrak uda asko pasau ditu Areatzan. Iturrimorroko zubia, Felipe Manterolak orain dala 100 urte baino gehiago egindako argazki batetik egina; eleizea goitik ikusita; Santa Clara komentua; Arratiako tranbia eta Karpoko paseoko iturria agertzen dira koadrootan. Areatza Dagiguneko Edorta Bilbao eta Sara Gutierrezen esanetan, nahiz eta erakusketea martxan egon, leitekena da beste egile batzuek be koadroak emotea. Holan izan ezker, horreek be gehituko litzatekez dagozanai erakusketan eta zozketan.

Autofinanziazinoa

Areatzako herri galdeketa 2.000 euro inguruko aurrekontua dauka. Antolatzaileen arabera, boto-papelak, karta-azalak eta propagandako guztia 800 euro inguru dira. Galdeketa egunean be hainbat gastu dagoz: egun horretarako seguru zibila, informatika programak, eta abar. Diru hori lortzeako da koadroen zozketea eta Areatzako alkarteak antolatu dituan beste hainbat ekintza; pintxo txosnak barikuetan eta jaietan eta kamiseten salmentea, hain zuzen be. Jenteak ondo erantzun dauala dinoe alkarteok.

Zemendiaren 5a

Etberik etxe banandu dabez herri

galdeketearen oinarriko informazioa emoten dauan orria eta gauza bera egingo dabe boto-papelakaz.

Zemendiaren 5ean, Areatzakoak "Euskal Estatu burujabe bateko hiritarra izan gura dozu?" itaunari erantzungo deusie karta-azalean, Bai, Ez edo boto papel Zuria sartuz eta Dagigun Areatza lokalean botoa emonez. 09:00etatik 20:00etara emon ahal izango dabe botoa Bekokalea 6-8, plaza ondoko lokalean, Areatzan erroldatutako 16 urtetik gorakoak. Botoa emoteko Nortasun Agiria, gidabaimena, pasaportea edo EHNA eroan behar da eta dokumentuan ez badau jarten agiriduna Areatzan bizi dala, Errolda Agiria be eroan behar da.

Boto aurreratua urri bigarrenaren 28an, zapatuan, eta 29an, domekan emon ahal da 10:00etatik 14:00etara alkartearen lokalean.



ARRATIA

Kataluniari babesa kantuz emon eutsien arratiarrak

Kantu bat Gara eta Arratiako Gure Esku Dagok antolatuta, 65 arratiar joan ziran kantuen bidez Kataluniako urri bigarrenaren 1eko erreferendumari babesa emoteko.

Erredakzioa

Generalitatearen datuen arabera, 2,2 milioe boto emon ziran eta indepentziaren baiezkoren aldekoak horreen %90 izan ziran. Espainiako poliziak eta Guardia Zibilak erreferendum-a ez egiteko bozkalekuetan sartu zan indarrez eta 800dik gora lagun zauritu ebazan egunean zehar. Arratiarrak, Vic eta Fogueroles-en egon ziran eta hango udaletxe, plaza edo botoa emoteko lekuetan, Lluís Llach-en, "Compayns, no es això", "Abril 74" eta batez be "L'Estaca" katalanez eta euskeraz kantau ebazan katalanai alkartasuna adierazoteko.

Zapatuan, erreferendumaren bezperan, goizeko 10:00etan, CUP, ERC eta PDeCat-eko zinegotziak egin eutsen harrerea aratiarrai Vic-eko udaletxean. Zinegotzien diskursoaren aurretik, Ibon Izak egindako bertsoak eta alkartasun marxa bat kantau eben arratiarrak. Dimako Andoni Garaik eta Igorreko Izaskun Barrietak hartu eben berbea gero eta bisita gidatua izan eben udaletxetik. "Vic-en 8 bozkaleku egon ziran eta jentea bertan egon behar zan hurrengo goizean zabalik

egon eitezan. Ordu asko emon behar ziran bertan, bozkaleku batetik bestera kantetan joateko esan euskuen", azaldu deutso BEGITUri Sara Gutierrez Gure Esku Dagokoak. Eta holan egin eben goizeko 11:00etatik, goizaldeko 03:00rak arte.

Hurrengo egunean, domekan, 07:30ean barriro egozan bozkalekuan. "08:00retan, urnak eta boto-papelak sartzean ikusi genduzan eta mahaia eratzen. 09:00etan, botoa emoten hasi ziran. Botoa emoten lehenengoa 95 urteko andra bat izan zan. Dana sinbolismoz beteta egon zan, sano hunkigarria izan zan" dino Gutierrezek.

Fogueroles herrira joan ziran gero. Han bozkalekua plazan zan. Alkateak egin eutsen harrerea eta plazan jentek txaloka hartu ebazan. "L'Estaca" kantau eta jentegaz berbetan egon ziran 13:45era arte, Igorrerako bidea hartu arte.

Baina ez zan izan egun horretan "L'Estaca" kantau eben atzenengo aldia. Izan be, 22:00ak aldera Igorrera ailegau ziranean, Arratiako beste herrietan legez, lapiko hotsa egoan errotondan Espainiako Estatuaren errepresioa salatuteko,



Arratiatik Vic-era joandakoak.

eta han be harrerea egin eutseen Kantu bat Gara eta Gure Esku Dagokoai. Eta "L'Estaca" kantau eben barriro be.

Bartzelonara eta beste herri batzuetara joan zan arratiarrik be egon zan. Honeek be bozkalekuetan egon ziran, ahal ebengaz lagunduten, baina batez be alkartasuna eta babesa adierazoten.

Konzentrazioak Arratian

Erreferendum egunean Katalunian bertan zein Bilbon egon ziran hainbat arratiar, baina egunaren aurretik be egin ziran mobilizazioak Arratian. Holan, Gure Esku Dagok eta EH Bilduk deituta konzentrazioak egin ziran; EH Bilduk, EAJ-PNVk eta Kataluniarekin Koordinaziogunearen mozinoak onartu ziran, Dima eta Igorreko udaletxeetan; berbaldiak be egin ziran; eta arratiar askok parte hartu eben Gure Esku Dagok antolatutako Bilboko manifestazioan.

Urri lehenengoaren 20an Katalunian izandako atxiloketak biztu eben detonatzailea. Egunean bertan Dima eta Zeanurin egin

ebezan elkarretaratzeak. Lemoan 22an batu ziran eta Areatzan eta Zeanurin 23an. Zeanurikoak, hilaren 29an egin eben hirugarren konzentrazio bat. Diman, Zeanurin eta Lemoan, EH Bilduk deitu ebazan konzentraziook; Areatzan Gure Esku Dagok. "Ez da jarkera epel eta joko bikotxerako ordua, Katalunia babestu eta Euskal Herrian Erabakitze Eskubidearen aldeko beste fronte bat zabalduko momentua da" adierazo eutsan BEGITUri Lemoako EH Bilduk.

Igorreko Axular Herriko Tabernan, "Cataluniarren autodeterminazio prozesuaren aurrekari eta erronkak" berbaldia antolatu eben urri lehenengoaren 26an.

"L'Estaca"

Gure Esku Dagok eta Euskal Herriko hamaika musikari, bertolari eta kantarik Lluís Llach-en "L'Estaca" kantuarren bideoklipa grabau eben eta sare sozialen bidez zabaldu. Kantari horreen artean lau arratiar dagoz: Bihotz Gorospe, Olatz Goikoetxea, Naïra Zurinaga eta Iraia Inunziaga, hain zuzen be.

LEMOA

Trafikok isuna ipini deutso Udalari zebrabidea ostadar banderearen koloreakaz pinteteagaitik**Erredakzioa**

Lemoako Udalak alegazioak egin ditu eta oindino ez dau erantzunik jaso.

Udalak, tren geralekuaren parean dagoan zebrabidea, LG-TBI (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual) kolektiboaren banderearen koloreakaz pintau eban bagilean, LGTBI Harrotasunaren Egunaren inguruan, Lemoa orientazio sexual eta genero dibersidadearen alde dagoala adierazoteko. Hori dala eta, Bizkaiko Trafikoko bulegotik isuna heldu jakon udalari abuztuaren 3an. Udalak alegazioak aurkeztu ebazan.

Salaketea agente batek egin eban bagilaren 23an. Salaketearen arabera, zebrabidea kolorez margoztutea, seinale baten edukia aldatzea da eta 1428/2003 Errege Dekretuko 142.3 artikuluan arau-hauste larria. Proposatzen dauan isuna 3.000 eurokoa da.

ARRATIA

BEGITUKO erredakzioa Arteako Kultur Etxean barriro**Erredakzioa**

Arteako Kultur Etxeko obrak iraun bitartean, udaletxean izan dau BEGITUk erredakzioa. Orain, urri lehenengoaren 21etik aurrera, barriro be Kultur Etxera bueltau da, bigarren solairuko beste lokal barritu batera. Holan, 94 631 73 14 telefonoa barriro martxan da.

Arratia, Ubide eta Zeberriko udal guztiak lagunduten dabe BEGITU, Arteako Udalak erredakziorako lokala ipinten dau.

ARTEA

Ikasturte osorako kirol eta arte ikastaroen eskeintza**Erredakzioa**

Urri bigarreneko lehenengo astean hasiko dira Artean udal ikastaroak. Eskulanak, Arte aplikaduak, Zunbak, 3. Adinekoentzako gimnasiak, Yogak, Pilatesek eta umeentzako Euskal jantzak osotuten dabe Udal ikastaroen eskeintza.

Umeentzako euskal jantzak ikastaroan, 4 eta 12 urte bitarteko umeak parte hartu daikie. Ikastaro honetako eskolak eta Eskulanak eta Arte aplikaduak ikastaroetakoak, Kultur Etxean izango dira astelehenetan, eguenetan eta martitzenetan hurrengo hu-

rrengo. Gainontzeko ikastaroak Kiroldegan izango dira. Ikastaro guztiak ikasturte osorako dira; hau da, bagilera artekoak.

Prezioai jagokienean, 40 eurotik 120 eurora bitartean dagoz. Kiroldegira sartzeako giltz elektronikoa lortzeako 5 euro ordaindu behar dira.



IGORRE

Baserriko produktuak eta Harriti taldea Garbeko Azokan**Erredakzioa**

San Migel jaien ostean, udagoienean, baserriko produktuen sasoirik onenean, izaten da Garbeko Azoka. Aurten urri bigarrenaren 8an daukie hitzordua Garben baserri giroa bizi gura dabenak. Girotzeko, Harriti giza proba taldeak erakustaldia egingo dau eguerdian.

Hogeta hamar ekoizle inguruk euren produkturik onenak ipiniko dabez salgai: ortuariak, frutak, lorak, gaztaiak, pastelak, ezta... eta goiz osoan zehar horreek erosteko aukerea egongo da jai giro ederrean.

Garbeko Azokea 1975ean sortu zan eta Bizkaiko antxinakoenetakoa da. Hasieran, ganadu azokea zan, baina laster baserriko produktuak saltzeako azoka bihurtu zan, eta ortuariak hartu eben protagonismo nagusia.

Harriti

Eguerdian, 12:30ean, Harriti taldekoak erakustaldia egingo dabe. Erronka izaten da 500 kilotako harriagaz ahalik eta distantziarik handiena egin ordu laurden baten.

Bizkaian, giza probak egiten dauan andra talde bakarra da Harriti.

UBIDE

Udalak, komertzioak eta alkarteak informazioa konpartiduko dabe eskuko telefonoko aplikazio baten bitartez

Ubidezarrak, herriaren gaineko informazioa eta jardueren barri jaso eta konsultak eta irakokizunak egin daikiez Hirix App aplikazioagaz.



Ubideko Udala.

Erredakzioa

Ez bakarrik Udalaren informazioa, baita komertzio eta alkarteena be. Edo-eta aplikazio hau erabilten daben beste herrietako jarduerak ikusi. Horretarako Hirix App aplikazioa doban deskargetea nahikoa da.

Aplikazio honen bitartez, herritarrek atzen barri eta abisuak eta jarduera guztien barri jaso; gertakari, iradokizun eta konsultak egin; galdeketak bete, eta herriaren gaineko informazioa jaso daikie. "Demagun, herritar batek farola bat hondatu dala jakin arazo gura deusala Udalari. Aplikazio honen bitartez, horren barri emoteaz gainera, segimendua egin ahal dau eta bere eskaerea zein fasetan dagoan jakin momentu guztietan".

Ubideko Udalaren helburua aplikazio honeguz jentearen parte hartzea bultzatzea dala dino Josean Pagola Ubideko alkateak. "Legegintzaldia hasi zanean, parte hartzea bultzatzeko konpro-

misoa hartu genduan. Ikusten genduan halako muga batzuk egozala, Udalak egiten ebana eta herritarrek jasoten eben informazioaren artean tarte handia sortean zala. Komunikazioa aberastu beharra egoan. Eta holan hasi ginan gure aldetik begira ze sistema jarri eitekean, ze baliabide edo tresna, komunikazio hori aberasteko eta holango baten, Hirix-ek proposamena egin euskun, aplikazioa aurkeztu eta onartu genduan. Udala eta herritarren arteko komunikazioa aberasteko helburua dauka".

Hirix App aplikazioaren aurkezpena urri lehenengoaren 22an egin eben Ubiden. Ordurako 21 ubidezarrak deskargautu eukien eta hasiak ziran erabilten. "Uste dot errez lortuko dogula 50 erabiltzaile izatea, 185 herritarretatik" esan eban Aitor del Hoyok, a3r Consulting-eko kudeatzailea eta Hirix plataformaren sortzaileetakoak.

Udala, komertzioak eta alkarteak Aplikazio honen bitartez ez

bakarrik Udalak, herriko komertzioak eta alkarteak be emon daikie informazioa, "eskeintzak, antolatuten daben jarduerak, eta abar" eta euren bezero eta beste herritarrekaz komunikazioa hobetu. Izan be, Del Hoyo-ren esanetan "helburua ez da udala, herritarrek baino" eta udala eta herritarren komunikazioa hobeteaz eta jentearen parte hartzea handitzeaz gainera, herriko komertzioa bultzatzeko helburua be badauka Hirix App-ek.

Udalak, komertzioak edo-eta alkarteak barriren bat publiketan dabenean, ez bakarrik aplikazioan, baita euren Facebook, Twitter eta beste komunikazio bideetan publikauko da. "Udalari jagokonean, kudeaketa denporea optimizetan lagunduten dau. Barria idaztea nahikoa da eta udaltekiko panelean, eta Facebook eta Twitter badauka, horreetan be publiketan da batera. Gauza bera komertzio eta alkarteakaz. Aplikazioaz gainera, euren Facebook edo beste medioetan publiketan da" dino del Hoyok.

Herritarrentzat doban da. Udalak pagetan dauz zerbitzu hau ipintearen gastuak. Eta prezioa biztanleen arabera da. "Aplikazioa 15 eta 70 urte artekoai zuzenduta dago batez be. Ez dogu kobretan 15 urte baino gehiago bizi izateko" dino a3r Consulting-ekoak. Hata guzti be, gehien erabilten dabena 30 eta 55 urte bitartekoak dira.

Hamaika herritako informazioa

Aplikazioaren erabiltzaileak, Hirix plataformea erabilten daben beste herrietako informazioa be jaso leikie. Zeanurin be laster egongo dala funtzionamentuan dino Del Hoyok eta holan, interesa izan ezker, ubidezarrak Zeanuriko jardueren barri izango dabe eta Zeanurikoak Ubiden antolatuten diran ekintzen informazioa.

Aplikazioa Ubiden aurkeztu zanean, Hirix App-ek 1.600 erabiltzaile ebazan, 11 herritakoak. Bizkaian, Ubiden, Etxebarrin eta Larrabatzun dago funtzionamentuan; Gipuzkoan, Elgeta eta Ormaiztegin eta Araban, Aiara eta Okondon, batzuk aitatzearren.

IGORRE

Hogetahiru egunetan euskeraz egiteko erronkea bota deutse Udalak igorreztarrai

Erredakzioa

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuaguz eta herritar guztiai zuzenduta, "Urten armariotik!" kanpainearen barruan, zementuaren 10etik abenduaren 3ra arte euskereagazko 23 eguneko konpromisoa eskatu deutse Igorreko Euskera Zerbitzuak igorreztarrai. Jaietako Mila Baietz egunean, herri erronka lez, armairu bat egin eben Igorren, eta bertatik urten ziran aho bat, belarri bat eta barre bat. Hiru figura horreek, jentearen euskera ezagutza mailaren arabera euskereagazko konpromiso modu bana adierazoten dabe; ahobizi, belarriprest eta barrebizi deitutakoak. Ahobizi euskaldunak dira, belarriprest euskaldun pasiboak eta barrebizi euskaldunak ez diranak baina euskerearen aldeko jarkerea daukienak. Batzuei armairutik urtetea proposatzen jakie eta besteai urten diranak animetea eta lagundutea.

Ahobizi diranak "euskeraz ulertuten dauanari, beti lehenengo berbea euskeraz egiteko konpromisoa hartuko dabe. Hau da, aurrean daukanak, berba ez egin arren ulertzen badeutso, euskeraz segiduko dau; euskeraz dakianari beti euskeraz, ulertzen ez dauanari, ez, jakina. Baina bere konpromisoa izango da euskaldunai lehenengo berbea beti euskeraz egitekoa" azaldu deutso BEGITURI Irati Barrenetxea Igorreko Euskera Teknikariak.

Belarriprest euskaldun pasiboak dira; hau da ulertuten dabena baina berba egiteko gaitasunik ez, edo gaitasun urria daukienak, eta dakienai eurekaz euskeraz berba egiteko konbitea egiten deutsee, nahiz eta eurek erderaz erantzun. Barrebizi barriz, euskerarik ez da-

kienak baina euskeragazko jarkera positiboa daukienak dira eta adierazoten dabe pozik dagozala inguruan euskeraz entzuten dabenean.

Danai zuzendutako kanpaina

Herritar guztiak euskerearen armairutik atera gura dauz Igorreko Euskera Zerbitzuak eta horregaitik kanpaina ez da bakarrik euskeraz dakientzat. "Orain arte, egon gara beti euskaldunak aktibetan, baina besteak be aktibau behar doguz, ze besteak bermatzen dabe, ulermena baldin badago euskeraz jarraitu ahal izatea" dino Barrenetxeak.

Erronkak 23 egun iraungo ditu, 3 astetan bananduta. Belarriprestak eta barrebiziak 3 asteetan eutsi behar deutse erronkeari, eta ahobiziak gitxienez astebeterako emongo dabe berbea. Erronkan parte hartzeako Igorren jai, bizi edo lan egin behar da, 16 urtetik gora izan eta Kultur Etxean armairuaren ondoan dagoan kutxetan izena emon baktokak gura dauan figuran.

Partaideak txapa bat jasoko dabe ahobizi, belarriprest edo barrebizi dirala adierazoteko eta kanpaineak irauten dauan 23 egunetan aldean eroan behar dabe beste partaideak jakin dagien erronkan parte hartuten dabizala.

Inbiu eguneko balorazio ona

Euskera teknikariak sano balorazio ona egiten dau urri lehenengoaren 16ko Inbiu Egunaren gainean. "Goizean 400 personatik gora batu ginan Zapititik Zapira ekintzan, espero gendua baina gehiago, ia zapi guztiak agortu ziran. Eguraldia lagun izan genduan momentu estrategikoetan eta bazkarian 90 lagun inguru egon ginan. Sano giro ona egon zan".

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Pelig Mendizola, 5. 48530 LEMOA, Bizkaia
Tel. 600 480 830 fax 600 200 717

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Zer da Baietz 23 egun euskeraz?
URTEN ARMARIOTIKI Baietz 23 egun euskeraz


ARGAZKI LEHIAKETE

Terezin konzentrazino-eremuko erizaindegiko argazkia izan da irabazlea

Garagarrilean, Igorreko Gazteria Zerbitzutik, 8 gazte eta begirale bi Txekiara joan ziran Terezineko konzentrazino eremua ikusten. Teknika aldetik bikaina izateaz gainera, bere isilean, garrasi egiten daualako jaso dau saria.



Lehenengo saria: "Terezin erizaindegia" (Txekia), Illart Gumuzio.




Hirugarren saria: "Udea zuri baltza danean", Ainhoa Mendia.



Bigarren saria: "Menorca II", Asier Larrea.



"Ilulissat I" (Groenlandia), Jurek Ziemkiewicz.



"Txirrinarrantzan" (Caparica kostaldea, Portugal), Aritz Artetxe.



"Bizikolorez" (Agueda, Portugal), Elaia Artetxe.



"Mont Blanc I" (Alpeak), Garbiñe Uriarte.




"Sybelles Egunsentia" (Frantzia), Kattalin Astondoa.



"Assomada" (Cabo Verde), Nekane Intxaurtza.




"Alpeatan", Enara Gallastegi.



"Enbata arriskua Peñiskolan", Irantzu Gandarias.



"Metropolitan" (London), Gorka Ruiz.



"Ibon de Escarpinosa" (Cerler, Huesca), Maitane Iza.



"Zurriola udan" (Donostia), Mau Ziemkiewicz.



"Udako beharrak" (Girona), Mikel Diez.

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro Euskadiko Txapeldun MC2 Bizikletan

Erredakzioa

Oskar Garrok Euskadiko txapela lortu eban urri lehenengoaren 16 eta 17ko zapatu-domekan Zarautzen jokaturako Txirrindularitza Egokitutako Euskadiko Txapelketan. Lasterketa bitan parte hartu eban Igorrekoak, bietan bigarren egin eban, eta Euskadiko txapela lortu eban 48 km.ko lasterketan.

Lehenengo, 7 km.ko erlojupeko proba izan zan eta Alfredo Irustak irabazi ebazan proba eta txapela. Baina hurrengo eguneko 48 km.ko lasterketeak emon eutsan txapela Garrori. Lasterketa gogorra izan zan eta sprint-ean Antonio Garciak irabazi eutsan Garrori, nahiz eta biak denpora berean heldu mugara. Dana dala, igorretarra izan zan lehenengo euskalduna eta berak lortu eban txapela.

Zarautzkoa izan da denporaldi honetako atzen lasterketea. Orain

deskantsua hartuko dau Garrok eta datorren urteari begira jarri da. "Pausu bat aurrera egin" behar dauala eta helburu handiagoak dituala dino. Denporaldi honetan jaso dauan laguntzea eskertu gura dau txirrindulariak. "Eskerrak emon gura deutesdaz laguntza eta animoak emon deutenai urte guztian zehar eta bereziki Igorreko Udalarai" dino txapeldunak.



Oskar Garro.

TXIRRINDULARITZEA

Tiritu Xtrem BTT hilaren 8an izango da Diman

Erredakzioa

Dimako Tiritu Ziklista Elkarteak antolatutako Tiritu Xtrem Mendi Bizikleta Martxeak ibilbide bi ditu aukeran. Luzeak 42 km. eta 1.550 metroko desnibel positiboa dauka, laburrak barriz, 20 km. eta mila metroko desnibela. Partaideak 09:30ean urtengo dira Dimako plazatik. Aurtengoa zortzigarren edizioa da.

Bertan parte hartzeako, urri bigarrenaren 6ra arte emon daiteke izena kirolprobak.com webgunean, 10 euro pagauta, edo egun berean proba hasi aurretik 15 euroko prezioan. Webgunean izena emoten da-

benen artean, Garribikes dendak emondako oparia zozketatuko da.



AZKOREA

Euskal Herriko Txapelketako finala jokaturako dau Aitzol Atutxak

Erredakzioa


Urri bigarrenaren 15ean, Euskal Herriko Txapelketea jokaturako da Donostian eta bertan egongo da Aitzol Atuxa, Euskal Herriko bere laugarren txapela lortuteko ahaleginean. Horretarako, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Iñaki Azurmendi, Ugaitz Mugertza eta Joseba Otaegiren kontra neurtuko da. Ez dago ezer ebazita; izan be, seiren artean, bosgarren sailkatu da dimoztarra.

Igazko moduan, Iker Vicente dago lehenengo sailkapenean. Hata guzti be, laugarren geratu zan finalean. "Ikusiko da, zer gertatzen dan. Txapela lortzeak erreza emoten dau, baina lan asko dago atzean eta faktore askok eragiten dabe" dino Atutxak. Aitzol Atutxak atzen hiru urteotan jarraian lortu dau Euskal Herriko txapela.

Urrezko Aizkorako Txapeldunen Ligako finala

Urri lehenengoaren 15ean jokaturako Urrezko Aizkorako Txapeldunen Ligako atzen jardunaldian, Jon Rekondo nagusitu jakon di-

mozarrari eta hirugarren geratu zan Atutxa, Iker Vicente eta Jon Rekondoren atzetik. Hirurak jokaturako dabe finala urri bigarrenaren 22an Getxon.



Aitzol Atutxa.

MENDIA

Arantzazu eta Igorreko mugak ezetuteko mendi martxak antolatatu ditue

Erredakzioa

Arantzazuko Mugari Bira urri bigarrenaren 14an izango da. San Fausto jaietako egitarauaren barruan tradizioa dauka mendi marxa honek. Igorrekoa barriz, hurrengo egunean izango da.

Arantzazuko mendi martxeak 10 km. izango ditu. Partaideak 09:30ean batuko dira herriko plazan eta hurrengo ibilbidea egingo dabe: Plazea, Troka, Urikinieta, Argiñano, Bildosola, Elezkano, Arandui, Motxogan eta Arantzazugaiti, plazan amaituteko. Gitxi gorabehera ordu bi t'erdiko

ibilbidea da.

Igorreko Mugari Bira, Memorial Tomas Arandia "Piru"

Hurrengo egunean, Igorreko marxa arautu honen XXX. edizioan, herria mugatuten dabezan inguruak ezetuteko aukerea egongo da. Ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 25 km. ditu eta ibiltariak 08:30ean urtengo dira kiroldegitik, izena 08:00retatik aurrera emonda.

Ibilbide laburra egin gura dabena barriz, ordu erdi beranduago urtengo dira, 09:00etan. Izena 08:30ean emon behar da. Partai-

XXX. MUGARI BIRA - IGORRE -
MEMORIAL TOMAS ARANDIA "PIRU"
19 OCTUBRE 2017 - ORDIA 10 - (ORDIA ARANDIA - BURDIA BORDA)

NAGUSIAK	TXEKIAK
ERDURAREN BIRA - 25 km. EZA ERABITZE / INSCRIPCIOE 8,00 BETESA / SALDA 8,30	TERREIN BIRA - 10 km. EZA ERABITZE / INSCRIPCIOE 8,30 BETESA / SALDA 9,00

ERDURAREN BIRA - 25 km. INSCRIPCIOE 10€ - TERREIN BIRA - 10 km. INSCRIPCIOE 5€

INSCRIPCIOE 5€ - MENORES DE 18 AÑOS - GRATIS

FRUTAS PINO | MUGARI BIRA | IGORREKO UDALIA

deak 12 km.ko ibilbidea egingo dabe.

Oraineko Urri lasterketako

Gure
irastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



MENDIA

Mendi Lasterketetako Europako Txapelketea jokatu da Zeanurin

Urri bigarrenaren 7an, Gorbeia Suzien Ternua (GST) Lasterketa Nagusia jokatu da Zeanurin. Aurten, lasterketea, Europako Txapelketea da SKY modalidadean eta ISFren Skyrunner National Series Spain, Portugal & Andorra zirkuituko proba be bai.

Erredakzioa

Gorbeia tontorrera igoten dan 31 km. eta 2.400 m.ko desnibeleko proba gogor honetan, mendi korrikalariak ezagunenak izango dira. Tartean Aritz Egea, Oihana Azkorbebeitia, Ismail Razga, Andrea Gil, Daniele Cappelletti, Sheila Aviles, Florian Reichert, Celia Chiron, Benat Marmissolle eta Ingrid Müller.

Eurekaz batera, egun eta ordu berean, Lasterketa Herrikoian parte hartzean dabena urtengo dira. Proba herrikoak 22 km. eta 1.340 metroko desnibela dauka, eta galapan egin beharrean oinez be egin daiteke 6 orduren barruan. Hurrengo egunean umeen lasterketea egongo da.

Parte-hartzaileentzat haurtzaindegi zerbitzua egongo da eta masaje gunea, dutxen ondoan. Zaletuak korrikalari guztiakaz batera bazkalduteko aukerea izango dabe, 8 euroren truke bazkari-rako txartela erosi ezker. Sari banaketea 14:00etan izango da eta kategoria bakotzeko irabazleez gainera, sailkatutako Arratiako lehen andrazko eta gizonezkoak be saria jasoko dabe.

Jai giroa herrian

Egun osoan zehar, umeentzako puzgarriak, denda espezializaduen postuak eta musika egongo da. Bazkalostean, herri kirolak,

riak hartuko dabe parte. Ondoren kalejirea Gibelurdinek taldeagaz eta afaria frontoi txikian. Afalostean DJ FAK musika ipiniko dau.

Domekan umeen lasterketea 12:00etan izango da.

Gorbeia Suzien Ternua lasterketea Suzien Mendi Klubak antolatuta dau Intenational Skyrunning Federation (ISF) federazioagaz batera, eta Zeanuriko Udala, Bizkaiko Foru Al- dundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasuna dauka.

Egitaraua

Urri bigarrenak 5, eguena

19:00etan, Xabier Orbeagozo "Arria V."aren berbaldi eta ikus- entzunezkoa "Aizkora eta korrika" Igorreko Kultur Etxean.

Urri bigarrenak 6, barikua

17:30etik 19:30era, GST Lasterketa Nagusiko eta Herrikoiko dorsalen banaketea frontoian.

19:30ean, briefing-a, berbaldi tekniko.

20:30ean, korrikalarien aurkezpena.

Urri bigarrenak 7, zapatua

07:00retatik 08:30era, GST Lasterketa Nagusiko eta Herrikoiko dorsalen banaketea frontoian.

08:30ean, material ikuskapena.

08:45ean, korrikalariak urtekeran egon. Korrikalarien aurkezpena.

09:00etan, GST Lasterketa Nagusia eta Herrikoien urtekera. Disk-Breakers-ek musika ipiniko dau. Txalaparta.

13:30ean, bazkaria.

14:00etan, sari banaketea.

17:00etan, Herri Kirol erakustaldia. Harriti giza proba taldea eta Arratia eta Euskal Herriko herri kirolariak.

18:30ean, kalejirea Gibelurdinek taldeagaz.

20:30ean, jatekoa frontoi txikian. Ondoren, DJ FAK musika ipiniko dau.

Urri bigarrenak 8, domeka

11:00etatik aurrera izen emotea.

12:00etan, umeen lasterketea. Ondoren herri kirolak umeentzat plazan.

musikeak eta janak girotuko dabe herria. Herri Kirol erakustaldia egongo da 17:00etan, eta bertan Harriti giza proba taldea eta Arratia eta Euskal Herriko herri kirola-



Aritz Egea korrikalaria.

Argazkia: Unai Sorrarain.

FUTBOLA

Arratia lidertzan

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen futbol taldea lehen postuan dago lau jardunaldi jokatu eta gero. Arratiarrak jokatuak lau partidua irabazi dabez eta jokoan egondako puntu guztiak eskuratu ditue. Urri lehenengoaren 17an Mariñori 4 eta 1 irabazi eutsien; hurrengo astegienean Arratiak 2 eta 7 irabazi eban Hernaniren kontra, eta urri bigarrenaren 1ean Urbietan jokatuak atzen partiduan, 3 eta 1 irabazi eban Goierri Gorri taldearen kontra. Hurrengo partidua Pauldarrak B taldearen kontra jokatu dabe

etxetik kanpo.

Gizonezkoak hasi dabe liga

Arratiako gizonezkoen A taldeak oster, partidua bi jokatu ditu. Lehena 1 eta 2 galdu eban lurretakoren kontra etxean, eta urri bigarrenaren 1ean jokatuak atzen partiduan, 1 eta 2 irabazi eban Arratiak Urduliz taldearen kontra. Hurrengo partidua Igorren, Urbietan, jokatu dau Arratiak Loiuren kontra.

Lurraldeko Bigarren Mailan dagozan Arratia B eta LemoaHarrobi taldeak oster, hilaren 7 eta 8ko astegienean jokatu dabez euren lehen partidua.



ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



IKASTAROA

Arte Plastiko
feministaren harrobia
egiteko ikastaroa Lemoan

Erredakzioa

Nagore Txintxurreta Isasi ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoak ikastaroa emongo dau Lemoako Kultur Gunean, urri bigarrenaren 6



Nagore Txintxurreta.

eta 7an. Lemoako Udalak antolatuta Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako 2017-2018 ikasturteko lehenengo ikastaroa da eta Feminismoa marrazten izena dauka. Bariku arrasti eta zapatu goizean izango da. Jabekuntza Eskolako beste ikastaroak lez, doban da.

Partaideak jentartean andrak bizi daberen egoerearen gaineko gogoetea egingo dabe bitarteko plastikoak erabilia (*collagea*, tenperak, testurak...). Inspirazio iturriak beste andra sortzaile feministen lanak eta norberaren bizipenak izango dira. Ikastaroaren helburua ez da partaideak "ondo" marraztea, sortzaile dirala sentidutea eta prozesuaz gozatzutea baino.

ZINEKLUBA

Blade Runner
Igorreko
Zineklubean

Erredakzioa

Udako oporren ostean hasiko da berrari Igorreko Zinekluba hilean behin zirkuitu komertzialetatik kanpo dagoan pelikularen bat eskeintzen. Urri bigarrenaren 5ean, Ridley Scott-ek



zuzendutako *Blade Runner* zientzia fikzioaren klasikoa ikusteko aukerea egongo da. Betiko lez, 20:00etan emongo dabe Lasarte Aretoan.

Pelikulea 1982 urtean estrenau zan. Harrison Ford, Rutger Hauer, Sean Young, Daryl Hannah eta Edward James Olmos dira pelikula honetan parte hartzean daberen aktoreetako batzuk.

Istoria etorkizun hur baten giroa dago. Gizateriak androideak erabilten ditu espazioko kolonietan lan egiteko, baina honeetako bostek iges egingo dabe, eta Lur planetara itzuli euren egilea aurkitzeko asmoz. Agintariak Rick Deckard (Harrison Ford) polizia ohia bialduko dabe androideak "erretiretan".

Film klasiko honek, zinema baltza eta zientzia fikzioa buztartu, eta persona egiten gaituanaz eta hilkortasunaz gogoeta egiten dau. Oingoan, gainera, zuzendariaren montajea ikusteko aukerea izango dogula dinoe zineklubekoak, 1982an produktoreak zeharo aldatutako montajea pantailaratu zan-eta.

ONDAREA

Arratiako ondarea ezetuteko
aukera ugari egongo da hileon

Ondareari buruzko Europako Jardunaldien 17. edizioak 300 jarduera baino gehiago eskeiniko ditu urri bigarrenean zehar Bizkaiko 78 udalerritan, herritarrai ondare kulturala hurreratzeko helburuagaz. Aurtengo gaia "Paisaia bizia" da, eta ondarea lurraldearen ikuspuntutik jorratuko da. Holan, Areatzak, Arteak, Igorrek, Ubidek eta Zeanurik euren paisajeak ezetuten emoteko aprobetxauko dabe.

Erredakzioa

Areatzan, Euskal Jaia eta antzezlan formatoko bisitaldi gidatua egongo da; Artean organo kontzertua; Igorren Aramotzeko magaletatik Igorreko haranera ibilbidea egin dabe; Ubidetik Zeanurira, Larre mankomunidadeen zeharkaldia eta Zeanurin beste bost bisitaldi gidatu programau dabez: San Justora, Iburguen eta Alzustara, Undurrakako urtegiara, Eleizondoko monumentu moltsora eta Barazarko zentral elektrikora.

Urri bigarrenaren lehenengo egunean izan zan Igorreko bisitaldi gidatua eta hilaren lehenengo hamabostaldian, beste bisitaldi bi antolatu ditue Zeanurin: San Justora, harestia, karobia eta baseleizea ikusteko bisitea, hilaren 7an, eta Iburguen eta Alzusta ikustekoa 14an.

Zeanuriko lehenengo bisitaldiak

San Justo Otzerinmendi kofradian dago, Gorbeia mendiaren itzalpean. Haresti ederra, iturria, baselizea eta karobia dagoz bertan. Paisaje hori gizaldiz gizaldi joan da moldatzen Otzerinmendiko biztanleen behararen ondorioz. Jon Urutxurtu historialariak azalduko dauz paisaje horrek izan dituan aldaketak. Urtekera 10:00etan izango da Zeanuriko plazatik.

Hurrengo zitea hilaren 14an izango da, eta Zeanuriko kofradia bi ondo ezetuteko aukerea emo-



San Justoko harestia.

ten dau. Ibilbidean azaltzen diran etxebizitza mota desbardinak aztertuko dira. Iburguen kofradian, plazako etxe esanguratsuenak: XVII. mendetik gaur egunera artekoak, eta estilo eta funtzio desbardinak: Emaldi baserria, udaletxea, Arregiako etxeak... Alzustan barriz, Kallarte auzoko etxebizitza moltsoa aztertuko da: hemen, baserriak kale luze bat osatuz azaltzen dira. Alzustako hau egurrezko itxidura eta egitura bakartuko baserri moltso aberatsenetarikoak da Bizkaia mailan.

Iburguen eta Alzustako kofradietan zeharreko ibilbideak hiru ordu iraungo dau eta gidari lanak Jon Urutxurtu historialariak egingo dauz.

Hilaren 21ean hainbat jarduerak

Hilaren 21ean barriz, Areatzan, Artean eta Zeanurin egongo da nondik ibili. Zeanurin, 10:00etan, plazan alkartu eta Eleizondoko gune monumentalari bisita gidatua egongo da. Areatzan, 11:00etatik aurrera Euskal Jaia, eta 12:30ean, antzezlan formako bisitaldi gidatua Areatzako gune historikotik zehar. Iluntzean, 19:00etan, Arteako parroquia-eleizan, Noél Hazebroucq-ek organo kontzertua eskeiniko dau.

Barazarko zentral elektrikora bisitea hilaren 25ean izango da, eta Ubide eta Zeanuri arteko Larre Mankomunidadeen Zeharkaldia hilaren 28an.

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gaitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - oiaetxeoptika@hotmail.es

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA

Elkale, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 62 - 908 854 018

Kili~Kili
Ampo eta Purifikazio

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

arratiako
instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

begitu
arria ubide arria

izkaifisios

IGORRE
FISIOTERAPIA
ZENTROA

Elkale, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA
MARI
KLINIKEA

Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

KIÑU GAZTETXEA

Kiñu Gaztetxeak WhatsApppez emongo dau ekintzen barri

Erredakzioa

Igorreko Gaztetxeoak, Kiñu Gaztetxean egiten diran ekintza, auzolan eta kontzertuen barri WhatsApp talde baten bitartez emongo dabe. Telefono zenbakia 688 643 346 da eta "Kiñu ein gura dot" taldearen izena. Asan-

bladak astelehenetan egingo ditue.

WhatsApp taldean, beste jarduera batzuen artean, urri bigarrenaren 7ko lan egunaren eta hilaren 20ko kontzertuen barri jasoko dabe. Kontzertuak 21:00etatik aurrera izango dira, eta Borrokan eta Meido taldeak joko dabe.

JAIK

Jaiak Arantzazu eta Indusin

Erredakzioa

Hilaren 4an da Asisko San Franziskoren eguna eta egun horretan mezea eta barauskarria egongo da Indusiko (Dima) San Fresku ermitan eta hurrengo bariku-zapatuan jaiak ospatuko dabez. Aiko hemen egitaraua.

Urri bigarrenak 4, eguaztena

12:00etan, mezea San Fresku ermitan.

13:00etan, barauskarria.

Urri bigarrenak 6, barikua

16:30ean, Briska Txapelketea.

18:30ean, txixi-burruntzia.

20:00etan, EinGO Kantan eta Dantzaren taldea.

22:00etan, txokolataa.

Urri bigarrenak 7, zapatua

12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.

13:00etan, bertsolariak: Agin Laburu eta Beñat Ugartetxea.

14:00etan, Baba Lehiaketea.

17:00etan, HerriSport, herri kirol eta joko parte hartzaileak.

19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogi-tostada Lehiaketea.

21:30ean, erromeria Jainaga eta Narbaiza taldeagaz.

22:00etan, auzokoan antzerkia.

23:30ean, txokolataa.

24:00etan, zozketea.

Sanfaustoak Arantzazun

Arantzazun sanpedroetan eta sanfaustoetan ospatuen ditue jaiak. Sanfaustoak urri bigarrenaren 13an eta 14an izango dira.

Barikuan, hilak 13, mezea egongo da. Arginatx Mendi Taldeak Mugari Bira mendi ibilaldia antolatu dau hurrengo egunerako. Martxearen ostean, herritarrak babajana egiteko batuko dira. Iluntzean erromeria egongo da.

MITOLOGIA

Astebete hartuko dau aurten Jentilak Diman jaialdiak

Erredakzioa

Aurten hirugarren Jentilak Diman izango da eta egun batera baino aste osora zabaldu dabez mitologia ezetuten emoteko ikuskizun eta jarduerak. Ekintza nagusia, urri bigarrenaren 14an egingo dan mendi ibilbidea izango da.

Dimako Udalak eta Txumuluxeta Elkarteak, lau orduko ibilbidea antolatu dabe zaturako. Izan be, mitologia ezetuten emoteko helburuagaz, antzerkia eta mendi ibilbidea txandakatuten dabe Jentilak Diman izeneko ikuskizunean, eta aurten mendi ibilbidea egingo dabe. Ibilaldia egiten animetan diranak, jentilak, laminak eta beste izaki mitologikoak ezetuteko aukerea izango dabe Baltzola koben inguruetan.

Partaideak arrastiko lauretan abiatuko dira Zamakolatik (Indusi). "Orain negurantz goazenez gautu egiten da arinago, eta arrastiko lauretatik zortzi edo zortzi t'erdietarako mendi ibilbidea egingo dogu" azaldu deutso BEGIRURI Gotzon Aurrekoetxea antolakuntzakoak. Bidean zehar geldialdi batzuk egingo ditue, ipuin mitologikoak entzuteko eta herritarrak egingo daben antzerkitoxoa ikusteko: laminak agertuko dira, jentilak eta kristinauen arteko antzerkitoxo bat egongo da, izaki mitologikoen aurkezpenak egingo dira, Dimako koroak kantauko dau



eta atzanean herriko jantza taldeak jantzan egingo dau.

Bueltan, plazan, jentil poteoa musikeagaz 20:30ean eta 21:00etan txixi-burruntzia frontoi txikian.

Astebete mitologia landuten

Jenteak mitologiaren ezagutzan sakondutea gura dabe antolatzaileak eta sakonduteko denpora eta espazio gehiago, eta edade bakoitxeko jentilaria modu desbardinean zuzendu behar jakola eretxita, antolatzaileak herriko alkarteak batera, urri bigarrenaren 9tik 14ra, hainbat espaziotan, hainbat jarduera prestatu ditue.

Astelehen eta martitzenean, hilak 9 eta 10, eskolako umeak aktibitateak izango ditue jentilak eta beste

personaje mitologikoak ezetuteko. Hurrengo egunean, eguaztenean, liburategian, "ipuin esatari profesional batek" ipuin mitologikoen kontaketea egingo dau. Dimesten taldeak umeakaz mitologiaren lanketea egingo dau aste osoan zehar.

Urri bigarrenaren 12an, dimoztarrak herria girotu egingo dabe, "jentildu". "Eguena jai da eta eguerdian egingo dogu. Badaukaguz aurreko urteetan ateratako argazki batzuk eta horreek herrian ipinten joango gara" dino Aurrekoetxea. Dimako artista batzuk egindako olio handiak be ipiniko ditue, herriko artistak pintauteko irudi mitologiko oso handiak.

Barikuan berbaldia egongo da, 19:00etan Jubiladuen lokalean. Jon Aizpurua Barandiaranek "Ataungo jentilak" berbaldia emongo dau.

Argazki Lehiaketea

Urri bigarrenaren 14ko mendi ibilbide mitologikoa, jenteak argazki eder asko aterako dau-lakoan, Txumuluxeta alkarteak eta Udalak Argazki Lehiaketean antolatu dabe. Argazkiak egun horretako ospakizunagaz loturea euki behar dabe eta egileak zenbatgura argazki bialdu leikie txumuluxeta@gmail.com helbidera hilaren 17a baino lehen jpg formatoan. Mezuan egilearen izen-abizenak, telefonoa eta helbidea ipini behar dira.

Sari bi egongo dira, argazki onenari eta dimoztarraren argazki onenari. Sariak, 2017an Diman gastetako 150 euroko bonoak izango dira. Sari banaketean zementariaren 3an izango da.

DUNBA

Urruzunotarrak Gehituz Literatura Lehiaketako egonaldietan parte hartu dau Leire Aginagak

Arratia Institutua

Urruzunotarrak Gehituz lehiaketan saridun izan ostean, literatura egonaldietan parte hartu dau Leire Aginagak, Arratia BHlko batxilergoko ikasleak. Holan kontau deusku bere esperientzia:

"Urruzunotarrak Gehituz lehiaketaren Gasteizen egin zan sari-banaketearen ostean, zeozer jan eta Aubixara eroan ginduzan autobusa hartu genduan. Urduri nengoan, ez neban inor ezagutzen eta aste bat leku ezezagun batean jente ezezagunagaz pasetako bidea hartuta neukan jada. Bertara

heldu eta lehenengo kontaktuak hasi ziran, alkar ezagutu, berba egin... Aste osoan zehar, jente barria ezagutuz joan nintzan, adin eta izakera desbardineko jentea alkartu ginan egonaldian. Begirale beharretan Maite Franko eta June Oleaga euki genduzan.

Egunean zehar ekintzak egiten genduzan eta jente asko ezagutu genduan: Rafa Ruedak eta Gotzon Barandiaranek euskal musika eta poesien loturaren gaineko berbaldia emon euskuen; Yolanda Arrietak egun oso bateko tailerra eskeini euskun; Edorta Jimenezegaz itsasontzian Mundakatik Lai-

dara joateko plazerra be euki genduan. Hainbat eta hainbat ekintza egin genduzan eta 3 gauetan zehar bakotxak bere lana irakurri eban, azkenean danonak entzun genduzan arte.

Lagun eta esperientzia barriak egin eta bizi izan dodaz literatura abiapuntuzat hartuta. Oso esperientzia polita, errepikatze modukoa".

Hona saridun izan zan lanaren pasartexo bat:



ANBOTOKO DAMA

"Neskatala erditu ostean egun oso bat jota eman zuen emakumearen alaba naiz, loarekiko afektibitate amarengandik jasota duen hori. Txikitan pistinan burua murgiltzean, begiak ixtearekin batera, marrazo batek oina jango zion ikaraz bizi zen hura. Genazko tatuaje bat egin eta lore eder hark eragindako alergia zaintzeko, 15 egunetan hondartzara joan ez zena. Lasterka egitean, eskolako edo-



zein irabazteko gai zela uste zuen berbera naiz. Solfeoko klasean kantatzean ahots entzunezina uste zuen arren, dutxako akustika ezin hobean sarrera kobratzen hasteko intentzioa duena naiz... Jantzeko orduan kutre xamarra dela uste arren, armairuaren aurrean ordu mordoak bat igartzeko gai dena. Anbotoko Damaren izena eramateak izugarriko morboa ematez gain, ahalmen berezi bat oinordetzan utzi ziola uste duena, horixe naiz. Sentimenduetan iraultzak muturreraino eramateko beldurrik gabeko neska.

-Mari!- eguneroko ahots goxoak biografia kurioso honetatik atera nau".

AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 3
BEDIA**

Hilaren 20ra arte, Euskerearen aldeko leloen Lehiaketea.

IGORRE

Atara daigun egia gerizpetatik argira. Jose Migel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendiren heriotzaren inguruko egia osoa jakin nahi dugu erakusketean. Kultur Etxean. Hilaren 6ra arte.

LEMOA

Hilaren 31ra arte, Lemoako Argazki Lehiaketea. Gaia: Lemoa. Argazkiak kultura@lemoa.net helbidera bialdu behar dira.

**URRI BIGARRENAK 4
DIMA**

12:00etan, mezea Indusiko San Fresku ermitan; 13:00etan, barauskarria.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen Argazki Lehiaketa argazkiak aurkezteko atzen eguna.

**URRI BIGARRENAK 5
IGORRE**

19:00etan, Xabier Orbegozo "Arria V."aren berbaldi eta ikus-entzuzkoa "Aizkora eta korrika" Kultur Etxean.

20:00etan *Blade Runner* filma Kultur Etxean. Zinekluba.

ZEANURI

19:30ean, Zeanuriko Bertso Eskolea Kultur Etxean.

Parrokiak urri bigarrenaren 12rako antolatutako urtekeran parte hartzeako izena emoteko atzen eguna. 94 673 93 93, 94 673 92 50 edo 639 018 387 telefonora deituta.

**URRI BIGARRENAK 6
ARTEA**

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa Mataderoan.

DIMA

San Fresku jaiak Indusin. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, Feminismoa

marratzen ikastaroa Kulturgunean. Nagore Txintxurretaren eskutik.

ZEANURI

GST. 17:30etik 19:30era, GST Lasterketa Nagusiko eta Herrikoiko dorsalen banaketea frontoian; 19:30ean, briefing-a, berbaldi tekniko; 20:30ean, korrikalarien aurkezpena.

URRI BIGARRENAK 7**AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta,

Gorbeia perretxikoak: familientzat parkeko perretxikoak ezetuteko ibilbide gidatua Gorbeia basoetatik Iker Garcia adituaren eskutik. Izena emoteko 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus-en.

20:00etan, Charlie Cosh eta Mikel Gaztañagaren kontzertua The Quiet Corner-en.

BEDIA

10:00etatik 13:30era arte, familiako urtekerea Bediai zugatzak ezetuten. Plazan.

DIMA

San Fresku jaiak Indusin. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

IGORRE

10:00etan, lan eguna Kiñu Gaztetxean.

22:00etan, zinea *La seducción* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 13:00etara, Feminismoa marratzen ikastaroa Kulturgunean. Nagore Txintxurretaren eskutik.

ZEANURI

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea. Ikusi egitaraua 11. orrialdean.

10:00etan, San Justoko harestira eta baselizara bisita gidatua.

**URRI BIGARRENAK 8
DIMA**

09:30ean, Tiritu Xtrem BTT martxa. Dimako plazatik.

IGORRE

Garbako Azoka. 12:30ean, Harriti giza proba taldearen erakustaldia.

17:00etan, zinea *El capitán calzoncillos*; 19:30ean, *La seducción* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

GST. 12:00etan, umeen lasterketea. Ondoren, herri kirolak umeentzat.

**URRI BIGARRENAK 9
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, San Martin Egunean (zemendiak 11) babak egiteko izena emon liburutegian.

**URRI BIGARRENAK 11
AREATZA**

09:00etatik 11:00etara, Lanbideren puntu mobikorra.

**URRI BIGARRENAK 12
DIMA**

12:00etan, herria "jentildu". *Jentilak Diman* ikuskizunerako herria apaindu.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen Gredosera

urtekerea urri bigarrenaren 15era arte. Torozo (2.021 m.), Mogote del Cervunal (2.426 m.), La Mira (2.343 m.) eta Pico Zapatero (2.158 m.).

ZEANURI

08:00etan, Parrokiak antolatuta, Valvanera-Yuso monastegiak ikusteko urtekerea. Sagarna aurrean.

**URRI BIGARRENAK 13
ARTEA**

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa Mataderoan.

DIMA

19:00etan, Jon Aizpuruaren berbaldia "Ataungo jentilak". Jubiladuenean.

**URRI BIGARRENAK 14
IGORRE**

22:00etan, zinea *Dunkerque* Lasarte Aretoan.

**URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU**

San Fausto jaiak. 09:30ean, Mugari Bira plazatik urtenda. 15:00etan, babajana. Iluntzean erromeria.

AREATZA

20:00etan, Malcolm Scarparen kontzertua The Quiet Corner-en.

DIMA

16:00etan, *Jentilak Diman* mendi ibilbidea Zamakolan; 20:30ean, jentil poteoa herritik zehar; 21:00etan, txiti-burruntzia frontoi txikian.

ZEANURI

10:00etan, Ibañeta eta Altzastako kofradietan zehar ibilaldi gidatua.

**URRI BIGARRENAK 15
IGORRE**

XXX. Mugari Bira. 08:00etan, ibilbide luzerako izen emotea; 08:30ean, ibilbide luzeko martxa abiatuko da; 08:30ean, ibilbide laburrerako izen emotea; 09:00etan, ibilbide laburreko martxa.

17:00etan, zinea *Cars 31*; 19:30ean, *Dunkerque* Lasarte Aretoan.

**Las Vegaseko estiloko magia
Igorreko Kultur Etxean**

Uri bigarrenaren 14an, arrastiko bostetan, Sun Magoak, *Magic Spectacular*, magia ikuskizun handia eskeiniko dau Lasarte Aretoan.

Iñaki Ruiz edo Sun Magoa aditua da muturreko igesaldiak egiten, ilusino handiak sortzean eta lebitazioak egiten. Bere emonaldiak oso ikusgarriak izaten dira, ondo aukeratutako musikeagaz, ondo zaindutako eszenografiagaz eta iluminazio eszeniko bikaina erabilita. Magiako Sari Nazionala jaso dau.

Las Vegaseko estiloan, ikusleak muturreko egoeretan ipiniko ditu Sun Magoak, magia, ilusionismoz, eskapismoz eta emozinoz betetako ibilbide baten bitartez. Emonaldiaren une gorenean, mago batek ur-tanke baten barruan zuzenean egin daikien ikuskizun arrisksuenetako bat egiten dau.

telefonora.

TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gaztelania praktiketea aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**EGURRA SALTZEAN DA**

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurria zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonoan.

DANERIK**LAN ESKEINTZA**

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

ETXEA ALOKAIUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margarita).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuerea. Deitu 675 712 841

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Sun Magoaren ikuskizunerako.

Ainhua Rodriguez (Dima)
Alasne Artetxe (Artea)



2 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.

Rafa Ugalde (Amorebieta)




g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Mamuaren onomatopeia. Gertatu.
2.- Bokala. Lapraskor. 3.- Izan aditz jokoan. Kamiseta. 4.- Edabe garbia. Errusiako mendebaleko ibaia. 5.- Egja ez dana. 6.- Urmeen jokoan, "ikusi zaitut". Urtaro. 7.- Begirune. Amerizioa. 8.- Usaimenaren organoa. Bokala. 9.- Gizonezkoen izena. Zintzo.

GOITIK BEHERA

1.- Gisa. Jaramon. 2.- Uranioa. Zuhur. 3.- Berrogeta hamar erromatar. Abagunea. 4.- Elikatu. Azken letrea. Inesiboan, aldean, inguruan. 5.- Oharra. Bokala. 6.- Traketsa. Oxigenoa. 7.- Enbudu. Entzute.




Topau zazpi musika tresnaren izenak.



AKI MI KO

Kailoren



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-por: urrozul@euskalnet.net

PELI PEREZ DE ANUZITA

"Lar agertzen dira sukaldariak telebistan"

Peli Perez De Anuzitak 21 urte ditu. Orain dala hiru urte hasi zan Basque Culinary Centerren sukaldaritzan ikasten. Bertan sartzeako, 200 galderaz osotutako proba psikologiko bat eta ondoren talde dinamika bat egin behar izan eban. Dinamika horretan plastilina zati bat emon eta bere osotasunean definiduten eutsan platera egin ostean, taldeka, norberak egindako produktuak plateraren konposizioa egin behar izan eban. Aurkezten diran 400 personatik 100 izaten dira aukeratuak Basque Culinary Centerren ikasketak egiteko.

Rakel Aldekoa Diez

Zergaitik aukeratu zenduzan ikasketak horreek?

Inoz ez dot jakin zer gura dodan izan nagusitan. Normalean jentek argi eukiten dau zer gura dauan izan baina nik ez. Osabeak beti animau izan nau sukaldara. Bazkarietan-eta, nik beti lagundu izan deusat eta 12 urteaz apuntau ninduan lau eguneko sukaldaritzako ikastaro baten Portugaleten. Institutuan ikusi nebanean Mondragon Unibertsitatean dagozala sukaldaritzako ikasketak, eta ez zala bakarrik sutean ibiltea, sukaldaritzaren inguruko ikuspuntua zabalduen deusula, ba pentsau neban hori zala nire aukerarik onena unibersidadean ikasteko, eta bertara joan nintzan.

Lanbide Heziketako ikasketak, ikaslea lanerako prestetako helburua daukie, baina unibersidadeko ikasketen helburua orokorragoa da, jakintzak emon, pentsatzen irakatsi,

etika bat garatu... Uste dozu sukaldaritzan ikasketak unibersidadeko gradu bat izan behar dirala?

Bai, bat oso praktikoa da eta zuzenduta dago amaitueran segiduan behar egiten hastera. Gureak beste ikuspuntu bat dauka. Lehenengo mailatik hasten zara nahiko sukaldatuten, gero bigarren mailan gitxiago, hirugarren mailan gitxiago eta laugarren mailan ezer be ez. Sukaldaritzan, gastronomia eta abar beste begi batzuk ikustera dago zuzenduta.

Dana dabil aldatuten eta oin sukaldaritzak daukan izenagaz danak dabiz "super" profesional bihurtuten eta ikuspuntua pilo bat zabalduen. Beraz, egin gura dozunaren arabera, gradua zein Lanbide Heziketa aukeratu zeinke.

Pozik zagoz ikasketakaz? Zer ikasten dozue?

Bai sano pozik. Atzenean ez da unibersidade normal baten moduan, klaseak dagoz baina aparte kozinatu

egin behar da. Batzuetan dago gertakari bat aste betera eta joan behar zara unibersidadea aurretik elaboretako eta gauzak prepartetako. Oso dinamiko egiten da. Badaukaguz pilo bat klase *so cooking* diranak. Irakasleak sukaldatuten dauz platerak teknika eta tendentzia barriak erakusteko.

Alde teorikotik danerik ikasten dogu: Fisika, Kimika, Estadistika, Marketing-a... Gestinoa be pilo bat landuten da, azken baten inportanteena dalako. Basque Culinary Centerrek izena dauka eta oso-oso ondo saltzean da. Gu sartu garenetik produktu bat gara. Unibersidadeak lagundu gura deusku marka bat sortzean. Hori asko landuten da. Baita marketing personala eta jantzetaren marketing-a be.

Leku askotako sukaldaritzan eta sukaldaritzaren historia be ikasiko dozue. Zelan dago tratatua generoa sukaldaritzaren historian?

Normalean etxean sukaldatu dauana etxeko andrea izan da eta inoz ez jako emon meritua. Egia da sukaldaritzan oin postu gorenean dagoala, baita andra izenik ez dala entzuten edo andren aitamenik ez dala egiten be. Mundu guztiak daki nor dan Ferran Adriá, barbarako, baina inok ez daki andra sukaldari on baten izena. Lanketa handia falta da hor, eta historiagaz be bardin gertatzen da, betidanik chef-ak, Mi-

"Osabeak, hamabi urteaz sukaldaritzan ikastaro baten apuntau ninduan"

chael Park-eta, gizonetako dira eta andrak baztertuta dagoz.

Zeintzuk dira zure plater fabrikatzaileak? Jateko zein egiteko.

Ni oso jatuna naz, pilo bat jaten dot. Gehien gustetan jatan platera baba gorriak dira. Baina gehien gustetan jatana egitea, eta gainera nire bigarren plater fabrikatzaile pata-ta tortillea da. Astelehenero egiten dogu etxean eta emozionantea da momentua.

Beste gauza bat, azalpen bat behar dauana, sukaldaritzan barria deitzean dana da. Lan asko dauka plater bakoitza baina koilarakada bat baino ez da egoten plater handi baten eta prezio garestian.

Bai danak kejetan dira sukaldaritzan modernoan platerak oso handiak diralako eta janari oso gitxi dagoalako. Baina holango jantzetan normalean, 10 plater izaten dira. Horregaitik ezin da kantidade handirik ipini. Egiten dana da konprimidu, hau da, platera eta saboreak ipini ahalik eta bokadurik ekilibraduenean.

Oin jantze guztiak lan itzela daukie eta gestinoan asko hobetuten dabiz. Platerak oso kontzeptualak dira, behar handia daukie... Platera egin baino lehenago, plateraren historia pentsatu eta gero hori garatu behar da. Horregaitik batzuetan ez dau persona batek egiten, talde oso batek baino. Orduan bai, diru asko eskatzen da, lan handia dagoalako atzean. Hata guzti be, egia da garestiak dirala.

Nongo eta zein estilotako jantzetan zagoz espezializata? Non gurako zeunke lan egin?

Ez nago ezertan espezializata, hiru urte daroadaz ikasten eta ez daukat hainbeste praktika. Oindino ez dot euki astirik sukaldaritzan diferentek ikusteko eta esateko "bale hau da gehien gustetan jatana".

Ez deusta ardura non egin lan. Jantzetaren izen eta estatusak, egia esan, ez deusta askorik ardura. Danok egon gara jantze onetan, eta nik suertea euki dot praktiketan,



baina badago jentea hiru izarretako jantzetan egon dana eta ez dana pozik egon. Izan be, langileak super esplotata dagoz, tratu txarrak egoten dira... Nik gura dot gustura nagoan eta biziteko lain emoten deustan jantze baten egon.

Hamar urte barru ez dakit non egongo nagan gustauko jantze mundutik ibiltea leku diferentek bisitetan, gastronomia diferentek ikusten.

Telebista pizten dan bakoitzean, kirola ez badago, sukaldari (gizon) bat dago edozein motatako programa bat egiten. Lehen mutiko guztiak "futbolari" izan gura eben, etorkizuneko sukaldari?

Bai, dana da sukaldaritzan. Sukaldaritzako programa pilo bat dagoz, eta umeak sukaldari? Batek daki. Jentek gero eta begi hobeakaz ikusten dau sukaldaritzan eta sukaldariak. Dana dala, uste dot lar agertzen dirala sukaldariak eta igon dan moduan bajatuko dala. Espero dot hobera egitea. Orain arte ez da egon kontrolrik, ez ordutegietan, ez sol-datetan. Gazteak oin futbolista izan beharrean sukaldaritzan aukeratu badabe nik uste dot honek onera egingo dauala, gero eta preparazio hobeago dalako eta gauzak gehiago kontrolauko diralako.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburi Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA